

**EH Bildu Laudiok egungo ordenantza fiskaletan ezarrita dauden hobariak handitzea proposatu du egoera zaurgarrienean dauden herritarrak laguntzeko**

**Bereziki Ondasun Higiezinaren zergan eta hiri-hondakinen tasan aplikatuko liratezke hobari horiek.**

Laudio 2022-09-14. Ordenantza fiskalen inguruan zabaldu berri den eztabaidari begira, egun indarrean dauden hobariak handitzea proposatu du EH Bilduk. Proposamen horrek eragina izango luke bereziki Ondasun Higiezinaren zergan eta hiri-hondakinen tasan. EH Bilduren proposamenaren arabera, hobari horiek %95ekoak izatera heldu daitezke beti ere eta bizikidetzaren unitateen errenta eta kide kopurua kontuan hartuz.

Egoera zaurgarrienean dauden herritarrak laguntzea helburu du proposamen horrek. Baina udalaren ahalmen ekonomikoa eta zerbitzu publikoen kalitatea bermatzeko asmoz, bestelako proposamenak egin ditu EH Bilduk. Zentzu horretan, Jarduera ekonomikoren gaineko zerga (JEZ) igotzea, eta katrasto-balio altuena dutenen Ondasun higiezinaren zerga (OHZ) igotzea proposatu du.

*“Ez da herritarrei zergak modu orokortu batean igotzeko momentua baina politika publikoak mantentzeko erreforma fiskal baten beharra dago. Hau dela eta, gaitasun ekonomiko handia daukatenean ekarpen berezia egin beharko dute”, azaldu du Santi Hernando EH Bilduko zinegotziak.*

Bestalde, eta Laudioko bigarren etxebizitzak alokairura bideratzeko asmoz, araututako Etxebizitza Hutsen Programaren esparruan etxebizitza alokairuan duten herritarrei OHZren kuota osoaren % 50eko hobaria egitea da beste proposamen bat. Era berean, bertako ekoizleak babesteko asmoz, ostegun eta larunbateko merkatuetan parte hartzen duten bertako ekoizleek tasa bakarria ordaintzea proposatu du. Azkenik, Berdintasun legeak udal fiskalitatearen gainean agintzen duen Genero-inpaktuaren txostena egitea galdegin du EH Bilduk.

**EH Bildu Laudio propone aumentar las bonificaciones establecidas en las actuales ordenanzas fiscales para ayudar a la ciudadanía más vulnerable**

**Estas bonificaciones se aplicarían especialmente en el Impuesto de Bienes Inmuebles y en la tasa de residuos urbanos.**

Laudio 14-09-2022. EH Bildu propone ampliar las bonificaciones actualmente vigentes de cara al debate abierto sobre las ordenanzas fiscales. Esta propuesta incidiría especialmente en el impuesto de Bienes Inmuebles y en la tasa de residuos urbanos. Según la propuesta de EH Bildu, estas bonificaciones pueden alcanzar siempre el 95%, teniendo en cuenta la renta de las unidades convivenciales y el número de personas de las mismas.

Esta propuesta tiene como objetivo ayudar a la población en situación de mayor vulnerabilidad. Pero con el objetivo de garantizar la capacidad económica del ayuntamiento y la calidad de los servicios públicos, EH Bildu ha planteado otro tipo de propuestas. En este sentido, ha propuesto subir el Impuesto de Actividades Económicas (IAE), y subir el Impuesto de Bienes Inmuebles (IBI) de los que tienen más valor catastral.

*“No es el momento de subir los impuestos a la ciudadanía de forma generalizada, pero es necesario una reforma fiscal para mantener las políticas públicas. Quienes tengan una alta capacidad económica tendrán que hacer una aportación especial.”* ha explicado el concejal de EH Bildu Santi Hernando.

Por otro lado, y con el objetivo de destinar al alquiler las segundas viviendas de Laudio, otra de las propuestas es bonificar en un 50% la cuota íntegra del IBI a las personas que lo tengan en alquiler en el marco del Programa de Vivienda Vacía regulado. Asimismo, con el objetivo de proteger al primer sector local, propone que las personas productoras locales que participen en los mercados de jueves y sábado paguen una tasa única. Por último, EH Bildu ha solicitado la elaboración del Informe de Impacto de Género que la ley de Igualdad establece sobre la fiscalidad municipal.